

# SASKIBALOIKO ARAUTEGIA

(2018-2019)

- Minibasketeko arautegia aplikatuko da.
- Partidek 10 minutuko lau aldi izango dituzte. Aldien arteko atsedena minutu batekoa izango da.
- LEHENDABIZIKO HIRU ALDIETAN, PARTIDAKO AKTAN IZENA EMANDAKO JOKALARI BAKOITZAK GUTXIENEZ 10 MINUTUKO ALDI BAT JOKATU BEHARKO DU ETA GEHIENEZ BI ALDI. Atal hau betetzen ez duenari galdutzat emango zaio partida 20-0ko emaitzarekin.
- Lehenengo hiru aldietan ezingo da aldaketarik egin, lesionatutako, kanporatutako edo bere bostgarren falta egin duen jokalaria bat aldatzeko ez bada. Lehenago lesionaturik atera den jokalaria ere atzera kantxaratu ahal izango da lehen haren lekuan kantxaratu den jokalariaren ordeaz.
- Jokalari batek aldi batean esku hartu duela ulertuko da, nahiz eta oso denbora gutxian kantxan izan.
- Aldaketak laugarren aldian egin ahal izango dira, beti ere jokoa geldidagoenean.
- Bailerako fasean talde bat 6 jokalarirekin agertzen bada, emaitza ontzat emango da, baino partidako aktan izena emandako jokalaria guztiek gutxienez hiru aldi jokatu beharko dituzte. (Zazpi jokalaria agertzen badira, emaitza ontzat emango da, baino hiru lehenengo aldietan, partidako aktan izena emandako jokalaria guztiek gutxienez bi aldi jokatu beharko dituzte. Lehenengo hiru aldiak jokatu dituen jokalaria (kasu honetan ontzat emango da) ezingo du laugarrenean parte hartu).
- Gipuzkoako txapelketan zortzi jokalaria agertu behar dira partiduetara. Bestela partida galdutzat emango zaio taldeari 20-0ko emaitzarekin.
- **BALOIA SASKI AZPIKO MARRATIK ATERATZEN DENEAN (ERASOAN ARI DEN TALDEAK BOTATA) EDO SASKIRATZE BATEN ONDOREN, DEFENDITU BEHAR DUEN TALDEA BERE ZELAIRA JOANGO DA BALOIA JOKOAN JARRI ARTE)**
- Zati bakoitzean (aldi bakoitzean ez) hutsarte bat eskatzeko aukera izango du entrenatzaile bakoitzak. Partida osoan bi.
- Saskiratze baten ondoren hutsarte eskatu ahal izango da.
- Aldi bakoitzean talde batek lau falta baino gehiago egiten dituenetan bi jaurtiketa libre botako dira (bostgarrenetik aurrera).
- Alebinetan partida berdinduta bukatzen bada, bost minututako luzapena jokatuko da. Benjaminetan ez da luzapenik egongo.

- Talde batek bestearekiko 50 puntuko tartea lortzen badu, une horretatik aurrera ez dira lortutako puntuak aktan jarriko eta emaitza une horretakoa izango da. Partida osorik jokatuko da.
- Partiduko aktan, talde batek 10 jokalaria baino gehiago baditu, hirugarren aldiko bosgarren minututik aurrera, aldaketak libreki egin ahal izango ditu talde horrek.
- Ez da 24 segundutako araurik aplikatuko inongo kategoritan.
- Ez agertzeagatik partidua galduko du talde batek, baldin eta partida hasteko jarritako ordutik hamabost minuturen buruan eta inolako arrazoirik izan gabe, taldea kantxaratuko ez balitz.
- Partidu baten zehar, talde bat bi jokalaria baino gutxigorekin geratuz gero, galdu egingo luke partida. Irabaziz joango balitz, partida 20-0ko emaitzaz galduko luke.
- Ez dago hiruko saskiratzerik.
- Benjaminean, jaurtiketa librea, jaurtiketa libreen zirkuluerdiko marra etenetik egingo da.
- **ZONAKAKO DEFENTSA LEGEZ KANPOKOTZAT JOKO DA.**